

ABE

Amara Berriko Egunkaria

3 zb.

2011ko urriaren 5a



egileak:
Nora, Ane, Edit, Cecilia

agurra

Kaixo lagunok,

*Gu, Cecilia, Ane,
Edit eta Nora ga-
ra.*

*Sau aurtengo gure
lehenengo ABEa
da eta gauza harri-
garriak ikusiko di-
tuzue.*

*Espero dugu gus-
tatzen,*

AGUR!!!!



MADRILEKO ELIZ BATEAN EMAKUMEA TIROZ HIL DA

- Madrileko eliz batean, tiro batez hilda-ko emakume baten semea hil egin da. Gertaera ostegunean izan zen. Emakumea (36 urtekoa) haurdun zegoen tiroa jaso zuenean. Sendagileek berehala atera zuten haurra ama hildakoaren sa-beletik, baina azkenik hospitalean hil egin zen haurra. Bere maitale ordeak hil egin zuen emakumea tiro batez buruan, eta ondoren bere burua hil egin zuen buruan beste tiro batez.



2. STEINMANI SARIA HIL ONDOREN EMAN DIOTE

Egoera zailean zegoen Nobel sariak ematen dituen batzordea, atzo jakin oseau medikuntza nobel saria jaso duen zientzialariek bat ostiralean hil zela, sarien araudiaren arabera, ezin da hildakorik saritu. Azkenean, ordea, batzordeak Ralph Steinman kanadiarra saritzea erabaki du, ostiralean hil arren.



a u r k i b i d e a

- 1.- portada: Madrilen emakume hila eta Steinmani nobel saria.
- 2.- inkesta: Zein da zure lagunik hoberena?
- 3.- elkarrizketa: Lideri eta Haritzi.
- 4.- kontu kontari: Olerkia.
- 5.- gu ere idazle: Istorio motzak eta hizki zopa.
- 6.- lumaren kilima: Deskribapen Magikoa.
- 7.- saski naski: Eskutitza.
- 8.- denborapasak: Gurutzegramak.

ESKOLAZ KANPOKO AKTIBITATEAK

Atzo urriak hiru eskolaz kanpoko aktibitateak hasi ziren adibidez:saskibaloia,futmola eta abar...Talde asko egin dira.



INKESTA

ZEIN DA ZURE LAGUNIK HOBERENA?



ADRIAN:
ANDER.A



DANIEL:
ANDER.A



IBONE:
IXEIA ETA
AIHNOA



LEIRE:
IUNE ETA EDIT



MAIALEN:
CLARA ETA JULIA



LEIRE:
NORA ETA LIDE



SARA:
ANE.E ETA AN-
DREA



ANDREA:
ALBA ETA
ANA.M



SARA:
OLAIA



NORA:
ANGELA ETA
EVA

**Inkestaren emaitza: Ander A. da lagunik hobere-
na**

E L K A R R I Z K E T A

LIDERI



1.- Zein da zure kolorerik gustokoena?

- Morea

2.- Zein da zure lagunik hoberena?

- Ane I.

3.- Zein da zure bazkaririk gustokoena?

- Pizza

4.- Nor da zure irakaslerik gustokoena?

- Jose Joaquin

5.- Gustatzen al zaizu hirugarren zikloa?

- Bai

6.- Norbait gustatzen al zaizu?

- Ez

7.- Nora joan nahi duzu oporretan?

- New Yorkera

8.- Zein animali gustatzen zaizu?

- Izurdea

HARITZI



1.- Zein da zure kolorerik gustokoena?

-Gorria

2.- Zein da zure lagunik hoberena?

lagunik hoberena?

-Josu

3.- Zein da zure bazkaririk gustokoena?

-Pizza

4.- Nor da zure irakaslerik gustokoena?

-Jose Joaquín

5.- Gustatzen al zaizu hirugarren zikloa?

- Erdipurdi

6.- Norbait gustatzen al zaizu?

-Ez

7.-Nora joan nahi duzu oporretan?

-Parisera

8.-Zein animali gustatzen zaizu?

-Kolibria

e g u r a l d i a

eguzkia



Temperatura: 20 °

Euria: Ez

Haizea: Ez

Presioa: Ezer ez

Gaurko prebisioa: Eguraldi ona

ESAERA ZAHARRA: Goiz gorri arrats euri.

KONTU KONTARI

1 . z i k l o k o l a n a k

Olerkia



KATUAK MIAU

EGUN ETA GAU

BAT ETA BAT BI,

BI ETA BI LAU.

ZAPOA ETA

PUTZUA

HOTZA DAGO

ZAPOA, HOT

DAGO PUTZUA.



4.

egilea: Josiane Mena

Gu ere idazle

2 . e t a 3 . z i k l o k o l a n a k

ISTORIO MOTZAK

HASIERA:

- Egun batean, Misi katua kalean bakarrik zegoen. Baina bera ez nahi zuen bakarrik egon.

MUINA:

- Orduan, txakur bat gerturatu zitzaion. Dalmata bat zen eta Argi izena zuen. Berari, jolastea asko gustatzen zitzaion.

BUKAERA:

- Gau osoa elkarrekin geratu ziren ilargira begiratzen, eta biak azkenik elkarrekin bizi izan ziren.



egilea: Bega

ANIMALES SALVAJES

Instrucciones:

- Tienes que encontrar 7 animales salvajes, se puede encontrar en todas las direcciones.



Egilea: Mesay

T	I	G	R	E	A	P	N	U	A
M	M	R	U	X	S	A	U	H	G
F	E	N	C	C	O	N	G	I	U
M	N	L	D	U	L	T	N	V	I
T	S	B	E	S	L	E	O	N	L
U	S	S	O	F	S	R	R	S	A
U	S	C	S	I	A	A	X	W	S
C	O	A	L	A	X	N	Z	A	C
Y	S	U	S	I	Y	Z	T	X	O
S	O	W	V	X	W	U	S	E	C

Lumaren kilima

3 . z i k l o k o l a n a k

DESKRIBAPEN MAGIKOA

Basoan nago eta bertan jaio naiz. Marroia naiz, ile asko daukat eta horrela beroa izaten dut gorputzean. Oso indartsua eta handia naiz. Hortz handiak ditut. Usaimen ona daukat. 710kg pisatzen ditut.

Ibaietan dauden izokinak jaten ditut, oso onak daude. Nik eskuekin harrapatzen ditut izokinak, batzuetan ez ditut harrapatzen irrist egiten dizkidatelako, baina bestela bai. Nik ezta ere jaten dut, baina beldur pixka bat diet erleei. Baliteke horregatik ez jatea nahi bezain beste ezti.

Nire bizitza ondo dago. Negu guztia lotan pasatzen dut, baina batzuetan herrietara jeisten naiz janari bila, neguan basoan ez dabileko arrainik ibaietako ura izoztuta dagoelako, eta izokinak ibaietako behe aldera joaten direlako. Horrela pasatzen dut negu guztia eta udaberrian esnatzen naiz, uda bero askorekin pasatzen dut ile asko dudalako.

Nire etsaiak gizonak dira. Gizakiak beldurra dit eta babesteko hil egiten naute. Nire larrrua erabiltzen dute, poltsak, berokiak eta alfombrak egiteko, baina batzuetan guk hiltzen ditugu hatzaparrekin. Gizonak oso arriskutsuak dira horregatik beldur pixka bat diet.

Egun batean gizon batzuk harrapatu eta zoo batera eraman ninduten.

Han triste eta bakarrik nengoen, leku oso txikian nengoelako. Bueno ez zegoen hain gaizki ere, izokina ematen zidalako zaintzaileak eta oso ona zegoen, batzuetan ezta ere ematen zidaten, baina gutxitan.

Horrela urteak pasa ziren. Urtebete hil baino lehenago ni bezalako beste bat ekarri zuten baina gazteagoa zen. Eta handik urtebetera hil egin nintzen.



S a s k i N a s k i

. . . z i k l o k o l a n a

ESKUTITZA

Kaixo eguzkia :

Zer moduz zaude? Ni oso ondo nago.

Ez bazaizu inporta galdera batzuk egingo dizkizut: Zergatik berotzen duzu hainbeste?

Niri asko gustatzen zait eguzkia.

Zer moduz zeruan?Lagunak al dituzu?

Nik pila bat ditut,eta esango dizkizut: Ainhoa, Aitana, Ixeia eta Cecilia eta zureak zeintzuk dira? Nik kontatu dizkizut, espero dut zuk ere kontatzea.

Oso handia zara ezta? Nire uztez bai.

Udan bero gehiegi ematen duzu beroa asko guztatzen zait baina,nahiago dugu bero gutxiago ematea eta hotza egiten duenean

bero pixka bat ematea nahiago dut.

Agur eta jarraitu berotzen!!!




Egilea: Ibone Alonso





**ABE hitza aurkitu
Portadakoak ez du balio**

CRUCIGRAMA



VERTICALES

A.Cosa que se utiliza para lavar la ropa.La tercera vocal.

HORIZONTALES

- 1-Cosa que se utiliza para conducir el coche.
- 2-Lo que utilizan los niños pequeños al comer para no mancharse.La cuarta nota musical.
- 3-La primera consonante del abecedario.Lo que utiliza la gente para guardar la ropa .
- 4-El ruido que hacen los pájaros.El juego de mesa que para jugar se necesita un tablero,fichas blancas y negras.

